**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA**

**2014ko otsailaren 28a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamalaugarren urteko otsailaren hogeita zortzian, ortziralea, arratsaldeko zazpietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean eta ondoko zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Ainara Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote, José E. del Río Echeverria, Maider Arrieta Tapia, José Luis Echegaray Andueza, Jose Esteban Echeveste Apezteguia, Pedro Apezteguía Alzugaray, Victoriano Ruiz Alvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko bilkurak, aho batez, azken bilkuraren akta onartu egin du, 2014ko ilbeltzaren 31koa.

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

**28 de febrero de 2014**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes veintiocho de febrero del año dos mil catorce, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, doña Ainara Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote, don José E. del Río Echeverria, doña Maider Arrieta Tapia, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Pedro Apezteguía Alzugaray, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 31 de enero de 2014.

**2 – MUJICA GOYA ANAIEK SUSTATURIKO UDAL PLANAREN ALDAKETA XEHAKATUA. HASIERAKO ONESPENA.**

2013ko urriaren 24an (2.966. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), jaso zen Jose Antonio eta Marcelino Múgica Goya anaiek sustaturiko dokumentua, Gabriel Laborra Erdozain arkitekto jaunak idatzi duena.

Hartan, Biurrana auzoko 12.ean dagoen finka baten ordenazioa aldatzea proposatzen da (katastroko 2 poligonoko 238 partzela), gaur egun dagoen etxea bi eraikin parekatu berrirekin ordezkatzeko, horrek Udal Planak ematen dion eraikigarritasunaren handiagotzerik ekarri gabe.

Nasuvinsak, Udalari hirigintza arloan aholkua ematen dion enpresak, aldeko txostena eman du ilbeltzaren 27an. Horretan, adierazten du, behin betiko onespena emateko, sartu behar direla plano zehatz batzuk, jarduera-unitate bat zehaztu eta ibilgailuak aparkatzeko gune bat barruan sartu.

Espedientean, Udaleko idazkariak ilbeltzaren 30ean sinaturiko txosten ere ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko bilkurak, aho batez (horrela Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa izanik), honako hau erabaki du:

1 – Hasiera batean onestea Mujica Goya anaiek sustaturiko Lesakako Udal Planaren aldaketa

**2 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN MUNICIPAL, PROMOVIDA POR LOS HERMANOS MÚJICA GOYA.**

Con fecha 24 de octubre de 2013 (entrada nº 2.996 en el Registro General del Ayuntamiento), se recibió el documento promovido por los hermanos don José-Antonio y don Marcelino Mújica Goya, que ha sido redactado por el arquitecto don Gabriel Laborra Erdozain.

En el mismo se propone modificar la ordenación de una finca situada en el barrio de Biurrana nº 12 (parcela 238 del polígono 2 del catastro), con el objeto de sustituir la casa existente por dos nuevos edificios pareados, sin que ello suponga un aumento de la edificabilidad asignada por el Plan Municipal.

Nasuvinsa, empresa asesora del Ayuntamiento en materia urbanística, ha emitido un informe favorable con fecha 27 de enero. En el mismo señala que, para su aprobación definitiva, deberán incluir determinados planos, definir una unidad de actuación e incluir una zona para aparcamiento de vehículos.

Consta asimismo en el expediente, el informe suscrito por el secretario del Ayuntamiento el día 30 de enero.

A la vista de todo ello, el Pleno, por unanimidad (lo que supone el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación), acuerda:

1º) Aprobar inicialmente la modificación puntual pormenorizada del Plan Municipal de

puntual eta xehakatua, Biurrana auzoko 12.ean dagoen finka baten ordenazioa aldatzeko (katastroko 2 poligonoko 238 partzela).

2 - Espedientea jendaurrean ikusgai edukitzea hilabetez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaraturiko iragarkien bidez.

3 – Erabaki honen berri ematea sustatzaileei eta jakinaraztea, aldaketari behin betiko onespena eman ahal izateko, aldez aurretik bete beharko dutela Nasuvinsako txostenean ezartzen den guzia.

Lesaka, promovida por los hermanos Mújica Goya, para modificar la ordenación de una finca situada en el barrio de Biurrana nº 12 (parcela 238 del polígono 2 del catastro).

2º) Someter el expediente a información pública durante un mes, mediante anuncios insertados en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral.

3º) Que se notifique el presente acuerdo a los promotores indicándoles que, para que se pueda proceder a la aprobación definitiva de la modificación, deberán cumplir previamente todo lo establecido en el informe de Nasuvinsa.

**3 – ORDOQUI ARRIETA ANAI-ARREBEK ESKATURIKO OIHAN-PROBETXAMENDUA.**

2014ko ilbeltzaren 24an aurkezturiko eskaera aztertuta (263. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean), Osoko bilkurak aho batez honako hau erabaki du:

1 – Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Atalaren aitzinean tramitatzea Alejandro, Juan Ramon eta María Guadalupe Ordoqui Arrieta anai-arrebak eginiko eskaera, haritz amerikarren, platanoen, lizarren eta akazien matarrasa egiteko, 7.400 m2ko finka batean daudenak, Erramuegi parajean. Katastroko 2. poligonoko 194. partzelaren Q eta T azpipartzelen zati banari dagokio (probetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2014/6).

2 – Eskatzaileei jakinaraztea, lur-eremu hori komunal ageri dela udal katastroan, eta,

**3 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR LOS HERMANOS ORDOQUI ARRIETA.**

Examinada la instancia presentada con fecha 24 de enero de 2014 (entrada nº 263 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante la Sección de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por los hermanos don Alejandro, don Juan Ramón y doña María Guadalupe Ordoqui Arrieta, para realizar una matarrasa de roble americano, plátanos, fresnos y acacias en una finca de de 7.400 m2, situada en el paraje de Erramuegi. Corresponde a parte de las subparcelas Q y T de la parcela 194 del polígono 2 del catastro (referencia del aprovechamiento: Oihapart/2014/6).

2º) Comunicarles que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este

horregatik, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremu horren jabetzari buruz.

acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.

**4 – OSOKO BILKURAREN OHIKO BILEREN ORDUTEGIA.**

Gaur egun, Udaleko Osoko Bilkuraren ohiko bilerak, hilabeteko azken ortziralean egiten direnean, arratsaldeko 7etan hasten dira. Alkate jaunak proposatu du, hemendik aitzinera eta erraniko egun horietan, ilunabarreko 8:30ean hastea.

Horri buruz, Jose Luis **Echegaray** zinegotzi jaunak adierazi du: "2011ko ekainaren 24an burutu zen osoko bilkuran, onartu egin zen plenoak lau astetik egitea, ortziralean, ilunabarreko 8etan.

Ordutegi honi dagokionez, guk eskatu genuen plenoak 19 orduetan egitea neguan eta 20 orduetan udan, ordurarte ohitura zen bezala, baina BILDUk, gehiengo absolutua izanik, ez zigun kasurik egin. Azkenean, amore eman genuen eta aho batez onartu zen urte guzian 20 orduetan burutzea.

2012ko ilbeltzaren 27ko Osoko Bilkuran, bertze behin BILDUk, duen gehiengoaz abusatuz, erabaki zuen garrantzi handiagoa ematea ETAko presoen alde hilabetero azken ortziralean plazan egiten den kontzentrazioari, eta inposatu zuen egintza horrekin bat egiten zuten osoko bilkurak 19 orduetara aitzintzea, horrela plenoetako ordutegian bertze aldaketa bat egin zuen, gure abstentzioarekin.

**4 – HORARIO DE LAS SESIONES ORDINARIAS DEL PLENO.**

Actualmente las sesiones ordinarias del Pleno del Ayuntamiento, cuando se celebran el último viernes del mes, empiezan a las 19:00 horas. El señor alcalde propone que, de aquí en adelante y los días señalados, se comiencen a las 20:30 horas.

Al respecto, el concejal don José Luis **Echegaray** indica: "En el pleno celebrado el día 24 de junio de 2011, se aprobó que los plenos se celebraran cada cuatro semanas, en viernes, a las 20 horas.

Con lo que se refiere a este horario, nosotros habíamos pedido que los plenos se celebraran a las 19 horas en invierno y a las 20 horas en verano como venía siendo costumbre hasta entonces, pero BILDU, dada su mayoría absoluta, se cerró en banda. Finalmente cedimos y se aprobó por unanimidad su celebración a las 20 horas todo el año.

En el pleno del día 27 de enero de 2.012, una vez más BILDU, abusando de su mayoría, decidió darle más importancia a la concentración política que en favor de los presos de ETA se celebra en la plaza el último viernes de cada mes, e impuso que los plenos que coincidieran con este evento se adelantarían a las 19 horas introduciendo un nuevo cambio en el horario de los plenos, con nuestra abstención.

Orain, ematen du arazoa dela, arrazoi politikoez gain, kapritxo pertsonalak gehitzen direla, eta frogatuz, bertze behin, BILDUko zinegotzientzat garrantzitsuagoak direla kontzentrazio politikoak eta norberaren satisfazioak frogatzeko nor den hemen agintzen duena, plenoetako ordutegian bertze aldaketa bat inposatzen digute.

Egoera honen aitzinean, erabaki dugu BILDUkoek egin ditzatela plenoak nahi dutenean, baina ez gure babesarekin. Beraz, ebazpen-proposamen honen kontra emanen dugu botoa".

**Alkate** jaunak erantzun du: "Aipatu behar da erabaki hau ez dela kapritxo pertsonal bat. Lanarengatik, gaur egun ez dut aukerarik arratsaldeko zazpietan hemen egoteko eta horregatik egin da aldaketa".

**Echegaray:** "Ulertzen dugu Langileen Estatutuak eta momentu honetan indarrean dauden lan-legeek, pribilegio batzuk ematen dizkietela kargu publikoei enpresen aitzinean, eta uste dugu horiek exigitu eta bete egin behar direla, intentzio txarreko norbaitek haiek gabe funtzionatzerik badela interpretatu baino lehen, eta langileek lehenago izaniko borroka gogorretan lortu genituen lorpenetatik kenduta amaitzeko"

Ondoren, bozketa egin da. Udalbatzak, Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ/PNVko bortzen kontrakoarekin, erabaki du onartzea Alkatetzak proposatu duen ordutegi berria.

Ahora, parece que el problema es que, además de las razones políticas, se añaden caprichos personales y demostrando una vez más que, para los concejales de BILDU, son más importantes las concentraciones políticas y las satisfacciones personales de poder demostrar quién manda aquí, nos imponen otro cambio horario de los plenos.

Ante esta situación, hemos decidido que celebren los de BILDU los plenos cuando les venga en gana, pero no con nuestro apoyo, por lo tanto votaremos en contra de esta propuesta de resolución".

Responde el señor **alcalde**: "Hay que indicar que esta decisión no es un capricho personal. Debido al trabajo, hoy en día no tengo oportunidad de estar aquí a las siete de la tarde y por ello se ha hecho el cambio".

**Echegaray**: "Entendemos que el Estatuto de los Trabajadores y las leyes laborales vigentes en este momento conceden unos privilegios a los cargos públicos frente a las empresas, que creemos que deben ser exigidos y cumplidos, antes de que algún malintencionado interprete que es posible funcionar sin ellos y nos los terminen eliminando de los logros conseguidos por los trabajadores en duras luchas anteriores".

Seguidamente se procede a la votación. La Corporación, con el voto a favor de los seis concejales de Bildu y el contrario de los cinco de EAJ/PNV, acuerda aprobar el nuevo horario propuesto por la Alcaldía.

**5 - 2014 URTERAKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Espedientean, Udal-Aurrekontu Orokor eta Bakarraren proiektua ageri da. Kontu-hartzaileak eginiko bi txosten ere ageri dira: ekonomiko-finantzarioa (2014/02/10ekoa) eta bertzea, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontuaren egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzkoa, betetzearen inguruan (2014/02/12). Bere aldetik, idazkariak berea egin du tramitazioari buruzkoa (2014/02/21).

Eztabaida Jose Luis **Echegaray** jaunaren esku-hartzearekin hasi da: "Guk, uzten zaigun aldioro, eskua luzatu dugu eta luzatuko dugu herriko edozein aferaren inguruan, Lesakako bizilagun guziei onura ekarriko dizkieten akordioak lortzeko, uste dugulako Lesakako herritarrek merezi dutela garrantzi handiko akordioak lortzea, bereziki gaur egungo egoeran.

Gustatuko zitzaigukeen aurrekontuari buruzko akordio batera iristea BILDUrekin batera, 2014ko aurrekontuak aitzinera ateratzeko. Baina, BILDUk, kontu-hartzailearen bitartez, gaiaren inguruan posta elektroniko bat baino ez zigun bidali, eta soilik erabili zuen azkeneko Ogasun Batzordea, berriro ere kontu-hartzaile beraren bitartez, jakinarazteko, bertzerik gabe, bazela zirriborro bat, haren edukiari buruzko inolako azalpenik eman gabe.

Batzorde honen biharamunean, Txoperena alkateorde jaunak aipatu zidan, alegaziorik aurkeztu behar baldin banuen aurkezteko, zirriborroa

**5 - APROBACIÓN INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO PARA EL AÑO 2014.**

Consta en el expediente el proyecto del Presupuesto General Único del Ayuntamiento. Figuran también dos informe emitidos por el interventor: el económico-financiero (de fecha 10/02/2014) y otro sobre cumplimiento de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera (12/02/2014). Por su parte el secretario ha emitido el suyo, relativo a la tramitación (21/02/2014).

Comienza el debate con la intervención de don José Luis **Echegaray**: "Nosotros siempre que se nos permite, hemos tendido y tenderemos la mano a cualquier asunto municipal para lograr acuerdos que beneficien a toda la población lesakarra, porque entendemos, que los ciudadanos de Lesaka se merecen que se alcancen acuerdos de envergadura, máxime en la situación actual.

Nos hubiera gustado llegar a un acuerdo presupuestario junto con BILDU para sacar adelante los presupuestos de 2014, pero BILDU, a través del interventor, se limitó a enviarnos un correo electrónico sobre el tema y solo empleó la última Comisión de Hacienda, también a través del mismo interventor, para comunicarnos sencillamente que había un borrador, sin dar ninguna explicación de su contenido.

Al día siguiente de esta comisión, el Teniente de Alcalde Sr. Txoperena, me comentó que si tenía que presentar alguna alegación lo

azaltzeko bileraren bat deitu beharrean.

Egoera honen aitzinean, eta behin egiaztatuta 2014ko aurrekontuen zirriborroa, 2013kotik kopuru ttikietan ezberdintzen dela, biomasako aferari edo kultura etxeari lotuak, eta kontuan hartuta iaz, ordurako, erran genuela aurrekontuaren zirriborroa BILDUren nahiak asetzeko prestatua zegoela eta ez Lesakako egiazko arazoak konpontzeko, gero frogatu ahal izan zen bezala (haren edukia hamar hilabetetan zortzi aldiz aldatu behar izan baikenuen), eta ulertzen dugunez zirriborro hau 2013. urteko aurrekontuaren "moztu eta itxeki" bat dela, abstenitu eginen gara onartzerakoan, eta izan dadila BILDU bere aurrekontua onartzen duena, onartzen baitugu haiek dutela Udal honetako zinegotzien gehiengo absolutua eta ondorioz ez dutela zergatik gurekin elkarlanean ari behar(eta ez dira aritu) zirriborro hau prestatzen. Beraz, beraiena da hura prestatzeko ohorea, baina ez dezatela ahantzi jarduteko modu honekin haiek beraiengan hartzen dutela hemendik aintzinera gertatuko den guziaren ardura ere eta baita gertatuko ez denarena ere, harreman eta negoziazio faltagatik; ikusiko dugu ea zenbat denbora pasatzen den haren lehenbiziko aldaketa aurkeztu arte".

**Alkate** jaunak erantzun du: "Nik aipatu nahi dut, Jose Luisek aipatu duen bezala, korreoz bidali zitzaiola Aurrekontuen zirriborroa eta urtarrilaren 15ean izan zen eta orduz geroztik ez dugu inolako proposamenik jaso. Dudarik baldin bazuten Aurrekontu horren inguruan, aipatu zen

hiciera en lugar de convocar alguna reunión explicativa del borrador.

Ante esta situación y una vez comprobado que el borrador de presupuestos de 2.014, difiere del de 2.013 en pequeñas cantidades referidas al tema de la biomasa o casa de cultura y teniendo en cuenta que el año pasado, ya dijimos, que el borrador de presupuesto estaba preparado para satisfacer las pretensiones de BILDU y no para solucionar los problemas reales de Lesaka como luego se demostró, (ya que tuvimos que modificar su contenido, nada menos que en ocho ocasiones durante diez meses) y entendiendo que este borrador es un corta y pega del presupuesto del año 2.013, nos abstendremos en su aprobación y que sea BILDU quien apruebe su presupuesto, ya que reconocemos que ellos tienen la mayoría absoluta de concejales en este Ayuntamiento y por lo tanto no tienen porque contar, (como no han contado) con nosotros en la elaboración de este borrador, por lo tanto, suyo es el honor de elaborar el mismo, pero que no se olviden, que con esta forma de actuar asumen también ellos toda la responsabilidad de lo que ocurra de aquí en adelante y también de lo que no ocurra por falta de contactos y negociaciones; ya veremos cuanto tardan en presentar la primera modificación del mismo".

Responde el señor **alcalde**: "Quiero indicar, como José Luis ha indicado, que el borrador de los Presupuestos se le envió por correo y fue el 15 de enero y desde entonces no hemos recibido ninguna propuesta. Si tenían dudas en relación a ese Presupuesto, se indicó que las comentaran con

horiek lasai komentatzeko. Baina, nik dakidanez, ez da hauen inguruko dudarik ere agertu. Hau dela eta, orduan eginiko proposamenak aurkeztu ditugu eta aipatu, aurreko urteetan egin dugun bezala, nahiko errealistak izaten saiatu garela hauek onartzerakoan. Beti ere Udalaren zorra ez handitzea helburu gisa jarriz.

Egia da urtean zehar aldaketak egin izan direla, baina hau ezustezko sarrerak ditugulako ere izandu da. Bertzerik gabe, guri ere gustatuko litzaiguke denen artean Aurrekontu hauek lantzea eta gure aldetik, hori lortzeko, eman beharreko pausuak ematen saiatuko gara hurrengorako".

**Echegaray:** "Bakarrik komentatu, alkate jaunaren esku-hartzearen bukaerarekin lotua, aurrekontuen zirriborroaren edukiari buruz negoziatzeko bilerak ezin dituela talde minoritarioak deitu. Beraz, gauzatu ez badira, izan da gobernuan dagoen taldeak ez duelako gogorik izan gu deitzeko".

**Alkatea**: "Nik dakidala, ez dut uste inongo legeak gutxiengoan dagoen taldeari bilera bat eskatzeko aukera galarazten dionik. Gure proposamena hor zegoenez, beraiek eman behar zutela pausoa iruditzen zaigu".

**Echegaray:** "Gu, gutxiengoan dagoen taldea, arduradun egin nahi izatea, eta horretarako erratea ez duela inolako legerik ezagutzen gutxiengoan dagoenari bilerak deitzera galarazten dionik, egia erran deus gutti jakitea eta herri honetako funtzionamendu politikoaren berri gutti

tranquilidad. Pero, por lo que yo sé, no han aparecido ni dudas en relación a esto. Teniendo esto en cuenta, hemos presentado las propuestas realizadas entonces y mencionar que, como hemos hecho en los años anteriores, nos hemos esforzado en ser bastante realistas en el momento de aprobar éstos. Poniendo siempre como objetivo el de no aumentar la deuda del Ayuntamiento.

Es cierto que ha habido modificaciones a lo largo del año, pero esto ha sido también porque hemos tenido ingresos imprevistos. Sin más, también a nosotros nos gustaría trabajar estos Presupuestos entre todos y, por nuestra parte, para otra vez nos esforzaremos en dar los pasos precisos para lograr eso".

**Echegaray**: "Únicamente comentar, relacionado con el final de la intervención del señor alcalde, que las reuniones para negociar el contenido del borrador de los Presupuestos no las puede convocar el grupo minoritario. Por lo tanto, si no se han celebrado, es porque al grupo de gobierno no le ha dado la gana de llamarnos".

**Alcalde**: "Que yo sepa, no creo que ninguna ley prohíba al grupo que está en minoría la opción de pedir una reunión. Teniendo en cuenta que nuestra propuesta estaba ahí, nos parece que ellos tenían que dar el paso".

**Echegaray**: "El pretender responsabilizarnos a nosotros, al grupo minoritario, y para ello decir que no conoce ninguna ley que impida que el minoritario pueda convocar reuniones, verdaderamente es poco saber y estar poco enterado del funcionamiento político de este

izatea da".

Eztabaida amaituta, bozketa egin da. Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ/PNVko bortzen abstentzioarekin, Osoko bilkurak honako hau erabaki du:

1.) Lesakako Udaleko 2014. urterako Aurrekontu Orokor eta Bakarra hasiera batean onestea, baita hori betearazteko oinarriak ere. Gastuak eta diru-sarrerak 2.507.674,00 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoarenak, 2.014. urterako, berriz, 712.000,00 euroko kopuruan orekatuta daude.

2.) Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

**6 – EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA.**

Espedientean ageri da akordio-proposamen bat, Erregistro Orokorrean otsailaren 21ean jasotakoa (579. sarrera).

Gai honen inguruan, Jose Luis Echegaray zinegotzi jaunak zera dio: "Iruditzen zaigu hau Euskal Herria Bilduren mugimendu feministaren barne dokumentu bat dela, guk bertze era batean idatziko genuena, eta gainera ez duena inolako akordio-proposamenik aurkezten; beraz, iruditzen zaigu manifestu bat dela, kontzentraziotan leitzeko,

país".

Terminado el debate se procede a la votación. Con el voto a favor de los seis concejales de Bildu y la abstención de los cinco de EAJ/PNV, el Pleno acuerda:

1º) Aprobar inicialmente el Presupuesto General Único del Ayuntamiento de Lesaka para el año 2014, así como las Bases de Ejecución del mismo. Sus gastos e ingresos están nivelados en la cantidad de 2.507.674,00 euros. Por su parte los del Organismo Autónomo Residencia Andra Mari para el año de 2014 están nivelados en la cantidad de 712.000,00 euros.

2º) Exponerlo en la Secretaría municipal por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**6 – COMPROMISO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UNA EUSKAL HERRIA FEMINISTA.**

Consta en el expediente una propuesta de acuerdo recibida en el Registro General el día 21 de febrero (entrada nº 579).

En relación a este tema el concejal don José Luis Echegaray manifiesta: "Consideramos que se trata de un documento interno del movimiento feminista de Euskal Herria Bildu, que nosotros hubiéramos redactado de otra manera y que además no presenta ninguna propuesta de acuerdo, por lo que entendemos, queda en un manifiesto para ser

bertzerik gabe.

Ondorioz, horren edukiaren jakitun geratzen gara.

Bozketa egiten bada, abstenituko gara".

Ondoren, eztabaida izan da, eta hartan parte hartu dute alkate jaunak eta Severiano Txoperena, Ainara Flores eta Jose Luis Echegaray zinegotziek.

Segidan, Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ/PNVko bortzen abstentzioarekin, Osoko Bilkurak erabaki du Lesakako Udalak segitzea emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoarekin eta gonbitea egitea, 2014ko martxoaren 8a ospatzeko, erakundeek eta kolektiboek antolatu dituzten ekitaldietan parte hartzera.

leído en concentraciones, sin más.

Por lo tanto, nos consideramos enterados de su existencia.

Si se vota, nos abstendremos".

A continuación de produce un debate, con intervención del señor alcalde y de los concejales Severiano Txoperena, Ainara Flores y José Luis Echegaray.

Seguidamente, con el voto a favor de los seis concejales de Bildu y la abstención de los cinco de EAJ/PNV, el Pleno acuerda continuar con el compromiso del Ayuntamiento de Lesaka a favor de la igualdad entre hombres y mujeres e invita a participar en los actos organizados por entidades y colectivos para celebrar el 8 de marzo de 2014.

**7 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (35.etik 78ra, biok barne).

**7 – CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 35 a 78, ambos inclusive).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día

zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik proposatu.

que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se propone cuestión alguna.

**8 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK.**

Jose Luis Echegaray zinegotzi jaunak aitzineko bilkurako "eskari-galderak" puntuan planteaturiko galderei erantzuteko, **Eltzeta kaleko 16.aren aitzinean jarritako txabola** baten inguruan, **hondakin organikoak biltzeko erabiltzen dena,** Severiano **Txoperenak** zera dio: "Erantzun hau orain dela hilabete bat emana izaten ahal zen, baina ziurtatu nahi nuen, badaezpada, hanka ez sartzeko. Arraro egin zitzaidan Etxegarai jaunak eraikin berezi horretaz galdetzea, berak horren berri izanda, batzorde batean nik aipatu bainien bertze leku batean jartzeak zer nolako arazoak eman zizkigun. Eta bilera horretan bertan eman genituen azalpen guztiak, edukitzen ahal ziren zalantzak nolabait argitzeko.

Horregatik, udalbatzaren hurrengo egunean, otsailak 1, itzuli bat eman nuen ziurtatzeko eraikin berataz hitz egiten edo galdegiten zuen jakiteko. Egia da, Eltzeta 16aren parean badago etxola bat, Bortzirietako Zabor Mankomunitateak ezarria, auzo konposta abian jartzeko. Baina Etxegarai jauna horren jakitun zen. Orduan, zergatik horrelako galderak?. Zer nolako errenta politikoa lortu nahi du Etxegarai jaunak?. Agian sortu nahi du mamuren bat, erranez herri honetan norberak nahi duena egin dezakeela, udalak utzikeria egiten duelako bere egin

**8 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

